



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ARAUDIA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Araudiaren xedea

Honako Araudiaren helburua Amorebieta-Etxano udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzea da.

2. artikulua: Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa

Etxez etxeko laguntza zerbitzua gizarte-zerbitzu publikoa da, eguneroko oinarritzko zereginak beren kasa burutzeko arazoak dituzten pertsona edo familiei zuzendua, eta ongizate fisiko, psikiko eta/edo soziala bere onera ekartzeko helburua duena, prebentzio, laguntza eta/edo errehabilitazioko norbanako programen bidez, ahal den bitartean norberaren ingurunean bizitzen laguntzeko.

3. artikulua: Helburuak

3.1.- Helburu nagusia

Erabiltzailearen bizi-kalitatea hobetzea, beren autonomia, segurtasuna eta gizarte-harremanak bultzatuz.

3.1.- Helburu zehatzak

- a) Autonomia galtzeari aurrea hartzea eta/edo autonomia galtzea konpentsatzea. Horretarako, eguneroko zereginak burutzeko eta/edo etxeko ingurunea bizitzeko moduko baldintza egokietan mantentzeko laguntza emango da; halaber, norberaren gaitasunak garatzea sustatuko da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- b) Arretarako sare naturala osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea.
- c) Erabiltzaileak beren komunitatean integratuta egotea bultzatzea eta bakartze, bazterkeria edo abandonu egoerak saihestea.
- d) Familia bizikidetzako giroa hobetzea; horretarako, arriskuren bat sor dezaketen egoerak saihesteko esku hartuko da.
- e) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska dezakeen beharren bat sortzen denean, behar horiek antzemateko elementutzat jardutea.
- f) Norberaren eta/edo etxeko autonomiarik ezaren inguruan biztanleek dituzten beharrianen berri izatea.

4. artikulua: Printzipio nagusiak

Zerbitzu hauek ematerakoan, ondoko printzipio nagusiak kontuan hartuko dira:

- Normalizazio eta integrazio printzipioa: Zerbitzua erabiltzaileen ondoko eremuetan emango da: etxekoa, familia, soziala eta kulturala. Ahal den neurrian, dauden ohiko bitartekoak erabiliko dira.
- Autonomia printzipioa: erabiltzailearen autonomia posiblea ahalik eta gehien sustatzea
- Parte-hartze printzipioa: Arreta plana prestatzerakoan, pertsonaren parte-hartzea sustatu beharko da.
- Globaltasun printzipioa: Ematen den arreta osokoa izan behar da. Erabiltzaileen beharrian desberdinak asetzeko balio anitzeko izaera duen laguntza eskainiko da.
- Profesionalizazio printzipioa: Zerbitzuaren arduradunek eta zuzeneko arreta ematen duten langileek dagokien eskuduntza profesionalak izan beharko dituzte.
- Indibidualizazio printzipioa: Zerbitzu honen onuradun guztiek, bere egoera baloratu eta diagnostikatu ondoren, bere beharrianetara egokitutako banan-banako arreta plan bat izan ahal izango dute.
- Osagarritasun printzipioa: Zerbitzu hau bestelako prestazio ekonomiko, tekniko edota teknologikoekin osatu ahal izango da.
- Prebentzio printzipioa: Zerbitzua ematerakoan, prebentzioa kontuan izan beharko da erabiltzaileak okerrera egin ez dezan eta horrenbestez, erakundetu.
- Barneratze printzipioa: Zerbitzua ematerakoan, norbanakoa eta/edo familia inguruan sartzeko ekintzak aurreikus daitezke.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

5. artikulua: Zerbitzuak eta prestazioak batera erabiltzea

- 1) Etxez etxeko laguntza zerbitzua ondokoekin bateragarria izango da: menpekotasuna prebenitzeko zerbitzua, autonomia sustatu eta zaintzaileei laguntza ematen diena, teleasistentzia zerbitzua, eguneko edo gaueko zentroaren zerbitzuarekin, aldi baterako egoitzako arreta edo arnas hartze zerbitzua edota, hala badagokio, azken zerbitzu hauei lotutako prestazio ekonomikoekin, betiere araudi honetan jasota dagoen bezala. Etxez etxeko laguntza zerbitzua ondokoarekin ere bateragarria izango da, araudi honetan jasotakoari jarraituz: familian zaintza lanak burutzeagatiko prestazio ekonomikoa, Norbanakoaren Autonomia bultzatzeko eta menpekotasun egoeran daudenei arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoa.
- 2) Etxez etxeko laguntza zerbitzua familian zaintza lanak burutzeagatiko prestazio ekonomikoarekin, Norbanakoaren Autonomia bultzatzeko eta menpekotasun egoeran daudenei arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoa, bateragarria denean edota eguneko edo gaueko zentroaren zerbitzuarekin edo hauei lotutako prestazio ekonomikoarekin, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren intentsitatea urritu ahal izango da. Gehienez ere hileroko 33 orduko zerbitzua eman ahal izango da eta norbere burua zaintzeko jardueretarako bakarrik (Araudi honen 6-B artikuluan jasotakoak).
- 3) Etxez etxeko laguntza zerbitzua ondokoekin bateraezina da: modu iraunkorrean egoitzako arreta jasotzeko zerbitzuarekin edo honi lotutako prestazioarekin, elkarte-etxebizitzetan egotearekin, bestelakoetan ostatu hartzeagatik eta Norbere Autonomia sustatu eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko norbere laguntzako prestazio ekonomikoarekin.

II. KAPITULUA EGINKIZUNAK

6. artikulua: Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eginkizunak

ELZk onuradunari berez edo familia-laguntzaren bidez egin ezin ditzakeen zereginak egiten lagundu behar dio, norberaren gaitasunak garatzea sustatuz eta haren mendekotasuna areagotu gabe.

Zerbitzuaren zeregin nagusiak hauexek dira: etxeko zereginak eta erabiltzailearen garbiketa pertsonala eta zainketa.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko Etxeko Laguntzailearen eginkizunak hiru taldetan sailkatzen dira:

.- etxekoak



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- .- pertsonalak
- .- hezkuntzazkoak

A) Etxeko jarduerak

Etxeko jardueratzat hartzen da erabiltzailearen etxean etxeko lanak egitea, erabiltzailearen autonomia pertsonala eta familiakoari laguntzeko.

Jarduera horiei dagozkien zereginak honakoak dira:

- Eguneroko kontsumoko oinarrizko janaria eta produktuak erostea.
- Janaria prestatzea (behar denean, ezarritako jan-neurrien arabera)
- Jantziak garbitzea.
- Jantziak konpontzea.
- Jantziak lisatzea.
- Jantziak erostea.
- Garbiketa orokor handiak izan ezik, etxebizitza garbitzea eta mantentzea.
- Konponketa txikiak, bonbillak ipini, kortinak konpontzea, etab.
- Oinarrizko kudeaketak: Pentsioa kobratu, ordainketak helbideratzeko kontua ireki, etxean konponketak egiteko teknikariari deitu eta antzekoak.
- Eskailerak eta/edo ataria konpontzea, alde zurratik sakon aztertuz.

B) Laguntza pertsonalak

Laguntza pertsonaleko jardueratzat jotzen dira zerbitzuaren erabiltzaileak batez ere burutu behar dituen eguneroko zeregin eta jarduerak, beraren gizarte-ongizatea eta pertsonala sustatzeko eta eusteko helburuarekin.

Jarduera horiei dagozkien zereginak honakoak dira, beste batzuen artean:

- Garbiketa eta higiene pertsonala
- Ohetik jeikitze eta eserlekuetik altxatzeko laguntza ematea
- Jantzen, erantzten eta jaten laguntzea.
- Etxebizitzako eskailerak jaisteko eta joan-etorri eta irteera laburretarako laguntza.
- Erabiltzailearen elikadura kontrolatzea.
- Medikuek adierazitako ahoz hartzeko botikak kontrolatzea eta botiken segimendua egitea, behar bezalako bermeekin egin lezakeen seniderik egon ezean.

Hezkuntzako jarduerak

Hezkuntzako jardueratzat jotzen dira oinarrizko trebetasunak bereganatzea eta jokatzeko ohiturak bultzatzea helburu duten jarduerak.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Jarduera horiei dagozkien zereginak honakoak dira, beste batzuen artean:

- Ekonomia eta familia antolakuntza.
- Prestakuntza bizikidetza-ohituretan (familia, ingurunea, ...).
- Integrazioa eta gizarteratzea laguntzea.

7. artikulua: Zerbitzutik kanpo dauden eginkizunak

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzutik kanpo honako jarduerak geratzen dira:

- Etxe berean bizi diren familiako kideak edo adiskideak artatzea, baldin eta zerbitzuaren erabiltzaile ez badira.
- Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (zorua pintatzea, papera ipintzea, ...)
- Etxeko garbiketa-lanak, erabiltzailearentzako banakako zerbitzuarekin zerikusirik ez badu, baldin eta bakarrik bizi ez bada.
- Zerbitzua gauz ematea edo onuradun bakoitzarentzat ezarritako orduetatik kanpo.
- Onuradunaren bila joatea bizi den etxea ez den beste leku batera, egoera berezietan izan ezik.
- Osasun arloko jarduerak, jarduera horiek egiteko berariazko prestakuntza behar bada, esaterako:
 - Injekzioak ipintzea
 - Tentsioa hartzea
 - Zunda ipini edo kentzea.
- Ezagutza espezializatuak eskatzen dituzten zenbait botika ematea.
- Errehabilitazioko edo mantenimenduko ariketak egiten laguntzea
- Sendaketak, ultzerak eta eskarak tratatzea, ...

Amorebieta-Etxanoko Udaleko Gizarte Zerbitzuek prestatutako txostenean aurreikusten ez diren zeregin guztiak ere etxez etxeko zerbitzutik kanpo daude.

8. artikulua: Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak arretako egunak eta zerbitzuaren iraupena kontuan hartuko dituzten kasu bakoitzerako, pertsona horien beharrezan eta dituen laguntzen arabera (familia, Eguneko Zentroa, diru-prestazioa eta autonomia pertsonala sustatzeko Legean aurreikusitako beste batzuk) eta pertsona bakoitzaren beharren azterketan emandako mailaren arabera.

1) Arreta-egunak



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

-Orohar, zerbitzua urte osoan emango da astelehenetik ostiralera bitartean jai-egunak salbu.

-Izaera mugatuarekin, zerbitzua asteburuetan eta jai-egunetan eskaini ahal izango da menpekotasun handia dutenei (III. maila), norbere autonomia sustatu eta menpekotasun egoeran daudenei arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta hau garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera eta bakar-bakarrik Araudi honetako 5-B artikulua ezarritako norbere burua zaintzeko jardueretarako. Oinarrizko gizarte zerbitzuek aztertuko dute hori.

2) Zerbitzuaren iraupena

Zerbitzuaren iraupena finkatzeko onuradunaren beharrianak kontuan hartuko dira. Zerbitzua emateko mugak (denborari dagokionez) ondokoak dira:

. Abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, jadanik aipatua, menpekoak direnei hilero gehienez ere ondoko ordu kopurua eman ahal izango zaio, etxez etxeko laguntza zerbitzua bestelako prestazio eta/edo zerbitzuren batekin batera jasotzen ez dutenean (Araudi honetako 4. art.an jasotako kasuetan):

- III. graduko menpekotasuna aintzatetsi zaienei, 2. maila: 77 ordu hilero
- III. graduko menpekotasuna aintzatetsi zaienei, 1. maila: 55 ordu hilero
- II. graduko menpekotasuna aintzatetsi zaienei (menpekotasun larria), 2. maila: 44 ordu hilero
- II. graduko menpekotasuna aintzatetsi zaienei (menpekotasun larria), 1. maila: 33 ordu hilero
- I. graduko menpekotasuna aintzatetsi zaienei (menpekotasun arina): 22 ordu hilero

. Abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera menpeko izaera ez dutenei gehienez ere 22 ordu hilero eman ahal izango zaizkie.

3) Arreta orduak

Zerbitzuaren ordutegia malgua eta egunekoa da, 7:00etatik 22:00etara.

- Laguntza pertsonaleko zerbitzuetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, eskatzailearen ordutegietako ohiturak eta beharrak kontuan hartuta.
- Gainerako laguntza zerbitzuetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, zerbitzua eskaintzen duen erakundearekin batera, zerbitzua ematen duen langileak duen ordutegiaren arabera.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

III. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

9. artikulua: Erabiltzaileak zehaztea: sartzeko baldintza orokorrak

1.- ERABILTZAILEAK ZEHAZTEA

Orokorrean, zerbitzu honen erabiltzaile izango dira autonomia galtzearen ondorioz eguneroko jarduerak burutzeko (Araudi honetako 6. artikuluan jasotakoak) laguntza behar dutenak aldi batez edota modu iraunkorrean, euren etxebizitzan bizitzen jarraitzeko. Profil hori egiaztatuko da 14. art.an zehaztutakoaren eta Araudi honetako I. Eranskinean zehaztutakoaren arabera.

Araudi honetan xedatutakoarentzat, familia unitatea osatuko dute zerbitzuaren titularrak eta honen ezkontideak edota izatezko bikoteak, hauen seme-alabek 18 urtera arte (barne) edozein kasutan edota 26 urtera arte etxebizitzan bizi badira eta langabezian edota ikasten badabilta eta seme-alaba ezgaituek, % 33 baino gutxiagoko minusbalotasuna ez badute, etxebizitzan bizi badira eta ekonomikoki familia unitatearen babespean badaude.

2.- ELZ JASOTZEKO BETEKIZUNAK

- Artikulu honetako lehenengo zatian ezarritakoa betetzea erabiltzailearen profilari dagokionez.
- ERROLDATZEA: Aipaturiko taldeetako batean egoteaz gain, eskatzaileak Amorebieta-Etxano udalerrian erroldatuta egon behar du, gutxienez eskariaren data baino urtebete lehenagotik.

Baldintza hori bete ez arren, norbaitek honako hiru baldintzetako bat betetzen badu, aukera izango du zerbitzua eskuratzeko:

1. Familia biltzeko bizitokiz aldatu, eta Amorebieta-Etxanora joandako pertsona izatea, eta bizitokiz aldatu arte jatorriko udalerrian etxez etxeko laguntza jaso izana. Eskaera egitean Amorebieta-Etxanon erroldatu beharko du. Era berean, jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du, etxez etxeko laguntza jaso duela egiaztatuz.
2. Familiako laguntza jasotzearen, hainbat udalerritako etxeetan txandaka bizi den pertsona izatea. Horren gain, erroldatuta dagoen udalerrian ELZaren onuradun izatea. Jatorriko udalerriko Gizarte Zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du, etxez etxeko laguntza jasotzen duela egiaztatuz.
3. Familia biltzeko, udalerrri honetara etorrira, zerbitzua justifikatzen duen I. Eranskinaren araberrako menpekotasuneko egoera duela ziurtatzen duen pertsona izatea. Eskaria egitean Amorebieta-Etxano udalerrian erroldatu beharko du eta menpekotasuna baloratzeko eskatu.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Familia unitatearen barruan zerbitzu hau jasotzen duten guztiek sartzeko baldintza orokorrak bete beharko dituzte. Eskaria familia unitateko kide bat baino gehiagorentzat egiten denean, denek bete beharko dituzte sartzeko baldintzak. Zerbitzuaren titular bat izendatuko da onuradun guztiak ordezkatzeko dituen. Araudi honetako 20. art.ak aurreikusitako zioen batengatik iraungitzen denean familia unitateko beste onuradun bat izendatu ahal izango da.

Titulartasun aldaketak beharizanak berriro baloratzea ekarriko du, egoera sozio-familiarra eta egoera ekonomikoa.

10. ARTIKULUA: ONURADUNEN ESKUBIDEAK

Euskal Autonomi Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta langileen eskubide eta betebeharrak onartzen dituen gutunaz eta iradokizun eta kexa araudiaz gain, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko Lehenengo Ataleko II. Kapitulua, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek ondokoetarako eskubidea izango dute:

- Zereginen orri bat izango dute, iraupena eta burutuko diren lanak jakiteko.
- Zereginak programatzerakoan parte hartu.
- Beharizanen ebaluazioa eta esku-hartzea berrikustea, egokitzen direla egiaztatzeko asmoz.
- Zerbitzua ematea aldatu edo etetea eragin ahal duten arrazoien berri (ordutegia eta laguntzailea) idatziz eta ahoz izatea denbora nahikoa lehenago.
- Beren beharizanei egokitzen zaizkien beste zerbitzu osagarri edo alternatibo batzuen berri izatea eta, behar denean, zerbitzu horietara desbideratzea.
- Zerbitzua ematen duen laguntzailea eta iraupena aldatzea eskatzea, behar bezala justifikatuz.
- Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea menpekotasuna baloratzeko eta/edo minusbaliotasuna zehazteko.

11. ARTIKULUA: ERABILTZAILIEN BETEBEHARRAK

Euskal Autonomi Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta langileen eskubide eta betebeharrak onartzen dituen gutunaz eta iradokizun eta kexa araudiaz gain, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko Lehenengo Ataleko II. Kapitulua, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren onuradunek, ondoko betebeharrak bete beharko dituzte:

- Etxetik kanpora joateagatik zerbitzua eten behar bada, horren berri ematea udaleko teknikariei denbora nahikoa lehenago.
- Etxean egotea etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileek zerbitzua ematen duten bitartean.
- Zerbitzua emateari buruz hartutako erabakiak errespetatzea.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren langileekiko ahalik eta begirune handiena izatea.
- Zerbitzua ematen duten langileei lana erraztea.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

-Onuradunaren egoera pertsonalean, ekonomikoan edo familiakoan, ematen den zerbitzua aldatzeko (modalitatea, edukia edo iraupena), amaitzeko edo eteteko moduko gertaerak badaude, horien berri ematea.

-Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak lan egitean izan duen edozein irregulartasunen berri ematea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei.

-Etxez etxeko langileei lanak egiteko beharrezkoak diren tresna eta materialak ematea.

-Zerbitzua jasotzen ari den bitartean hartu edo lehenagotik zuen gaixotasun infekzioso-kutsakorren berri ematea udaleko langile teknikoari, etxez etxeko laguntzaileek beharrezko babes neurriak har ditzaten.

-Espedientea tramitzatzeko eta, behar denean, berrikusteko agiriak aurkeztea.

-Orduko ezarritako prezioa adierazitako epean ordaintzea emandako zerbitzu bakoitzagatik; ordu horietan sartzen dira, halaber, eskatzaileari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik bete gabeko orduak.

Betebehar hauetarikoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo iraungi egingo da araudi honetan araututako prozeduraren arabera.

IV. KAPITULUA.- SARTZEKO PROZEDURA

12. artikulua. Zerbitzura sartzeko eskaria

Etxez etxeko laguntza zerbitzua eskuratzeko interesatuak horretarako eskaria egin beharko du, Araudi honetako III. eranskinean agertzen den eskaera agiri normalizatua erabiliz. Agiri hori organo eskudunari zuzenduta egongo da, eskatzaileak sinatuta eta Udaletxeko Erregistroan sarrera eman beharko zaio edota azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38. art.ak aurreikusitako moduren bat erabili beharko da.

Prozesuaren edozein unetan, interesatuak bere eskarian atzera egin dezake. Horrela izanez gero, idatziz egin beharko du. Honek espedientea artxibatzea ekarriko du.

13. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

- 1.- I. Eranskinaren araberrako eskari agiria
- 2.- Elkarbitzita unitatea osatzen duten kide guztien NANren fotokopia edota identifikatzeko balio duen antzeko agiriren bat.
- 3.- Familia unitateko kideen erroldatze egiaztagiria.
- 4.- Familia unitatean 18 baino gutxiago dituzten adin-txikikoak daudenean, Familia Liburua.
- 5.- Menpekotasuna Baloratzeko Unitateak egindako balorazioa, dagokionean.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- 6.- Dagokion organo ofizialak emandako minusbaliatasun egiaztagiria, hala behar denean.
- 7.- Eskatzailearen txosten teknikoa, IV. eranskinaren arabera edota bestelako txostenak (ospitalekoa, etab.).
- 8.- Egoera ekonomikoaren datuak:
- Eskatzailearen eta berarekin bizi diren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpena, eta, halakorik ezean, eskatzailea deklarazioa egitera behartuta ez dagoela egiaztatzen duen Ogasunaren ziurtagiria.
 - Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitateko gainerako kideen diru-sarreraren ziurtagiriak: pentsio, nomina, langabezia sorospen, alokairu eta beste edozein ordainketaren egiaztagiria.
 - Ezarritako prezio publikoa helbideratzeko kontu korrontearen zenbakia eta horretarako baimen izenpetua, III. Eranskinaren arabera.

Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera ekonomikoa baloratzerik edota ez badu behar bezala justifikatzen, zerbitzuaren koste osoa ordaindu beharko du. Hori agiri batean jaso beharko da.

Eskaerarekin batera aurkezten den dokumentazioa osatugabea bada edo gaizki badago, Amorebieta-Etxanoko Udalaren Ongizate Sailak eskatzaileari 10 eguneko epea emango dio, atzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da, aldez aurretik ebazpena emanaz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua arabera.

Aurretik aipatu diren agiriez gain, eskaturiko zerbitzuari lotutako agiri osagarriak aurkezteko eska daiteke tramitazioan. Halaber, interesatuek alegazioak egin eta agiriak aurkeztu ahal izango dituzte, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70 eta 79. art.en arabera.

Eskatzaileak Udalari baimena emango dio beharrezkoak diren izapidetak burutzeko, datuak egiaztatu edo jasotzeko. Eskatzaileak araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela eta, dagokionean, zerbitzua finantziatzeko baliabide ekonomikoak eta baldintzak egiaztatu ahal izango dira baina aipatutakoak bakar-bakarrik.

Datu faltsuak ematen badira edota datuak ezkututzen badira, zerbitzuaren eskatzaile izaera zuzenean galduko da, izan ditzakeen erantzukizunen kaltetan gabe.

14. artikulua: Tramitazioa

Erabiltzaileen beharrianen ebaluazioa eta txosten-proposamena apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak 9 eta 10. art.etan jasotako zehaztasun eta epekin egingo da.

A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Eskatzailaren bizilekuari (hala denean, bizileku ibiltariari)dagokion Udal Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileek eskaria izapidetu, baloratu eta ebazpen proposamena prestatuko dute.

Teknikariak aurkeztutako agiriak aztertuko dituzte eta balorazioa burutzeko beharrezkoak direnak egingo dituzte, hala nola, elkarrizketak, bisitak etxera, ...

Beharrianen ebaluzioa Araudi honetako I. Eranskinean ezarritako baremoaren arabera egingo da. Eskatzaileak etxez etxeko laguntza zerbitzua izateko, baremo hori aplikatzerakoan gutxienez 100 puntu lortu beharko dira. Horietatik 30 gutxienez a) Autonomia pertsonala eta b) Etxeko arreta ataletan lortu beharko dira.

B) GIZARTE-TXOSTENA-PROPOSAMENA

Udal Gizarte Zerbitzuetako teknikariak aginduzko txosten bat egin beharko dute eta bertan ondokoak zehaztuko dira:

- Zerbitzua eskuratzeko baldintzak betetzen direla eta baita eskaria aurkeztekoak.
- Dagokionean, salbuespenez baldintzak ez betetzea onartzeko proposamena, Araudi honetako 8-2 artikuluan jasotako kasuan.
- Esku-hartzearen onuradun diren pertsonak, burutu beharreko zerbitzu mota, astero zenbat egun eta ordu, zereginak eta proposatutako zerbitzuaren iraupena.
- Eskatzaileak zerbitzuarengatik ordaindu beharreko prezioa.
- Dagokionean, zerbitzua ez ematea arrazoitzen duen proposamena.

15. artikulua: Ebazpena

Eskaria aztertu eta baloratu ondoren, erabakiak hartzeko organo eskudunari helaraziko zaizkio.

Eskariari udal erregistroan sarrera eman zaionetik gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da ebazpena. Epe hori eten egingo da eskariak zuzentzeko agintzen bada. Etetearen iraupena: jakinarazten denetik bete arte edota, osterantzean, emandako epea bete arte eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. art.an aurreikusitako gainontzeko kasuetan.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro bada berariazko ebazpenik hartu gabe eta ebazteko betebeharraren kaltetan gabe, eskaria gaitzetsizat joko da eta berraztertze errekurtsoa edota administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko aukera izango du interesatuak.

Ebazpenak edozein kasutan ere eta gutxienez ondokoak jaso beharko ditu.

- a) Hartutako erabakia, ematea edo ukatzea hain zuzen ere.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- b) Erabakiak administrazio bidea agortzen duela adierazi eta baitak jar daitezkeen errekurtsioak, ze administrazio organo edo organo judizialen aurrean aurkeztu behar diren eta jartzeko epea.

Zerbitzua ematea erabakitzen denean, ebazpenak ondokoak ere jaso beharko ditu:

Prestazioaren onuradunak identifikatu, ordu kopurua eta prestazioaren maiztasuna eta eskatzaileak ordaindu beharreko zenbatekoa prezio publiko bezala edota osterantzean, eskaria itxaron-zerrendan jartzea, zerbitzua ezin denean berehala eman aurrekontuetan horretarako dirurik ez dagoelako, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan izan ezik.

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrenda erabiliko da zerbitzua esleitzeko orduan hurrenkera bat jarraitzeko, I. eranskinean zerbitzua eskuratzeko lehentasunak finkatzen dituen baremoa aplikatuz bakoitzak lortu duen emaitzaren arabera.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren itxaron-zerrenda izango da eskari guztiei aurre egiteko aurrekonturik ez dagoen kasuetarako.

Zuzenean zerbitzuan onartu ez diren interesatuek, behar bezala egiaztatuz gero, espedientea berrikusteko eska dezakete euren egoera aldatzearen ondorioz, balorazioa alda badaiteke.

Prestazio eskaria ukatzea arrazoitu egin behar da, arrazoi hauetariko bat izan beharko delarik:

- a) Araudi honetan eskatutako baldintzak ez betetzea
- b) Araudi honen arabera beharrezkoak diren datuak edo agiriak ez ematea.
- c) Prestazioaren izaerarengatik edota egoitzarengatik, eskatzaileak beste Administrazio Publiko batera jo behar izatea.
- d) Behar bezala arrazoitutako beste zio bat.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak hala proposatuta, zerbitzua aldatuko balitz, zerbitzua hasteko ebazpenarekin jarraitzen den prozedura berdina jarraituko litzateke. Aldaketa erabiltzaileak eskatzen badu, eskari bat aurkeztu beharko da aldatu nahi izatearen arrazoiak argituz.

16. ARTIKULUA: Zerbitzuan onartzea

Zerbitzuan onartzerakoan, hurrenkera kontuan hartuko da eta horretarako eskaria baloratu ondoren I. eranskineko atalen arabera lortutako puntuazio globala kontuan hartuko da, betiere Araudi honetako 14 A) artikuluan zerbitzua eskuratzeko ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen badu.

Puntuazio bera duten eskarietan, eskariak sartzeko hurrenkera jarraituko da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

17. ARTIKULUA: Larrialdi egoerak

Salbuespenez eta premiazko beharrian gorrian daudenei laguntzeko, abandonu, babes falta eta/edo tratu txarrak jasan izateagatik, udal gizarte zerbitzuek prestazioa berehala ematea proposatuko dute, nahiz eta eskaria behar bezala bete gabe eta izapidetu gabe izan.

Udal gizarte zerbitzuek jakinaraziko diote, dagokionean, prestazioa ematen duen erakundeari zerbitzu hori ematea premiazkoa dela eta honek hala eman beharko du.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua premiazko prozedura erabiliz ezin izango da bi hilabetez baino gehiago eman. Epe horretan espedientea oso-osorik izapidetu beharko da.

Zerbitzua ematen hasi denetik 15 egutegiko egunean ez badira agiriak aurkeztu, ez egiteko arrazoirik izan gabe, zerbitzutik baja emango zaio.

V. KAPITULUA. EGOKITZAPENA ETA ZERBITZUAREN JARRAIPENA

18. ARTIKULUA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Onuradun bakoitzari emandako etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren segimendua egingo dute Amorebieta-Etxanoko Udalaren Gizarte Ongizate Saileko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, zuzen-zuzenean onuradunarekin eta zerbitzua ematen duten erakundearekin.

Horretarako, zerbitzuaren ikuskapena ofizioz edo alderdietako batek eskatuta egingo da, zerbitzuaren emakida eragin zuten inguruabarrak aldatu baldin badira eta, behar denean, zerbitzuaren jarraipena, aldarazpena edo amaiera aintzat hartuko dira.

19. ARTIKULUA: Egokitzapen garaia

Zerbitzua hasi osteko hurrengo hiru hilabeteetan, pertsonak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamendura egokitzen daudela ulertuko da. Onuradunari dagokion Gizarte Langileak eta/edo, hala denean, zerbitzua kudeatzen duten enpresetako langileek, honekin komentatuko dituzte une oro sortzen diren arazoak eta beharrezko irtenbideak bilatuko dira egokitzapen on bat lortzeko.

Onuradunarekin irtenbide bat bilatzen aritu ondoren, honek zerbitzura egokitzeko zailtasunak agertzen baditu edo alderantziz edo zerbitzuak pertsonaren beharrianak behar bezala ez dituela betetzen ikusten bada, udal gizarte zerbitzuek egoera baloratuko dute eta proposamen bat egingo dute, horretarako alde aurretik gizarte zerbitzuko langileek eta /edo, hala dagokionean, zerbitzua kudeatzen duen enpresako langileek txosten bat egin beharko dutelarik.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Proposamena onuradunari aurkeztu beharko zaio eta honek 15 eguneko epea izango du alegazioak egiteko.

Udal gizarte zerbitzuetako teknikariak, alegazioak aztertu ondoren, dagokion organoari behin-betiko proposamena egingo dio, honek arrazoituz ebatziko duelarik. Pertsona hori zerbitzuetik irtetea erabakitzen bada, aukera bat proposatuko da, egongo balitz.

Zerbitzuaren finantzazioan onuradunek egiten dituzten diru-ekarpenak urtean behin egingo dira edo bestela, zerbitzuan aldaketaren bat dagoenean.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA AMAITZEA

20. ARTIKULUA: ZERBITZUA ALDI BATERAKO ETETEA

Eskumena duen organoak dagokion espedientea bideratu eta gero, eta Gizarte Ongizateko udal Zuzendaritzak hala proposatuta, zerbitzua aldi batez etengo da, aldez aurretik interesatuarekin audientzia izan eta gero. Onuradunari, eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaio ebazpenaren berri, legeak zehazten dituen epeetan eta baldintzak beteta.

Etenaldiak dirauen bitartean, zerbitzuagatik erabiltzaileak ez du zertan dirurik ordaindu.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua arrazoi hauengatik etengo da:

- Hiru hilabete baino denbora gutxiagoz ospitalean egotea. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke.

-Hiru hilabetez beste erakunde batzuek (Foru Aldundia) eskaintako baliabideengatik etxetik kanpo egotea. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke.

-Azken zerbitzuaz geroztik, hilabete eta erdi baino epe motzagoan, oporrak direla eta etxetik kanpo egotea. Oporraldiaren gozamina zatika egin daiteke eta aldi bakoitzaren iraupena gutxienez aste betekoa da. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke. Erabiltzailea familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, aldi hori txanden epeen arabera luzatuko da.

-Erabiltzaileak betebeharren bat betetzen ez badu, baina betebeharrak ez betetzea zerbitzua eteteko arrazoi ez denean.

Etxean ez egoteagatik zerbitzua eteten denean, erabiltzailea etxera etorri gabe dagoen denborak ezarritako epea gainditzen badu, zerbitzua iraungi egingo da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

21. ARTIKULUA: ZERBITZUA IRAUNGITZEA

Etxez etxeko laguntza zerbitzua arrazoi hauengatik etengo da:

- 1.- Onuraduna hil, uko egin edo beste udalerrri bateko egoitzara behin betiko aldatzeagatik.
- 2.- Zerbitzua ematea sortu zuen beharra desagertzeagatik.
- 3.- Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.
- 4.- Emandako zerbitzuagatik prezio publikoa ez ordaintzea.
- 5.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuan sartu ahal izateko eskatutako baldintzaren bat ez betetzea.
- 6.- Zerbitzuaren segimendurako eska daitekeen dokumentazioa ez ematea.
- 7.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileentzat zehaztutako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- 8.- Zerbitzua ematea eragozten duten arrazoi larriak.
- 9.- Onuradunak beste bitarteko bat eskuratzea, eteterako ezarritako eperako baino denbora gehiagoz.
- 10.- 15 egutegiko egunean bere egoera sozio-ekonomikoak izandako aldaketen berri ez ematea.
- 11.- Kasu bakoitzean ezarritako aldi baterako etetea igaro ondoren, etxera ez itzultzeagatik.

Udal gizarte zerbitzuen proposamena jarraituz, organo eskudunak erabakiko du zerbitzutik baja ematea, horretarako alde zuretik interesatuari entzungo zaiolarik. Erabaki hori onuradunari jakinaraziko zaio eta dagokionean, zerbitzua ematen duenari.

Onuradunak berriro zerbitzuarekin ekiteko asmoa agertzen badu iraungitzeko erabaki baten ondoren, eskari berri bat egin beharko du. Eskari hau Araudi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

Eten ondoren, onuradunak zerbitzua ordaindu barik badu, ordaintzea eskatuko zaio berriro zerbitzua ematen hasi baino lehen.

VII. KAPITULUA ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

22. ARTIKULUA: Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa

Prezioak etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko ebazpenean jasoko dira, etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea arautzen duen udal ordenantza fiskalak zehazten duen moduan eta han ezarritako baldintzekin. Urtero, dagokionean, organo eskudunak prezio horiek eguneratuko ditu aipatu Ordenantza Fiskalean ezarritakoari jarraituz.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Zerbitzua ematen duten langileek eta, hala dagokionean, adjudikaziodun enpresak, ezin izango dituzte dohaintzak eta aparteko ordainketak onartu, aurreko ahapaldian ezarritakotik kanpo.

Urtero kuota errebalorizatuko da.

23. ARTIKULUA: Finantziazioa

Zerbitzuen finantziazioa ondokoen kontura izango da

Onuradunak zerbitzua finantzatzen parte hartu beharko du. Zerbitzua ematen hasteko ezinbesteko betebeharra da, dituen baliabide ekonomikoak kontuan izanda, organo eskudunaren ebazpenean ezarritako kopurua ordaintzeko konpromisoa idatziz onartzea sinatuz.

Amorebieta-Etxanoko Udalak prezioari onuradunak ordaindu beharreko kopurua kendu ondoren ateratzen den zenbatekoa ordaindu beharko du, 24. artikulua eta II. Eranskinean ezarritako baremoaren arabera kalkulatua.

Bizkaiko Foru Aldundia izango da etxez etxeko laguntza zerbitzuaren onuradun diren menpeko pertsonen finantza arduraduna, berari dagozkion eskumenen arabera eta Amorebieta-Etxanoko Udalarekin sinatutako hitzarmenen arabera.

24. ARTIKULUA: Zerbitzua erabiltzen duenaren ekarpena

Araudi honetan araututako zerbitzuen onuradunak, zerbitzuaren kostearen portzentai bat ordaindu beharko du. Bere gaitasun ekonomikoa kontuan izanik kalkulatu da hau. Gaitasun hori zehazteko, zerbitzuaren onuradun diren pertsona guztien errenta kontuan hartuko da.

Erabiltzailearen ekarpena elementu hauen arabera ezarriko da, II. Eranskinean ezarritako baremoaren arabera.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuak ezkutatzek edo faltsutzek eskaria artxibatzea ekarriko du edota zerbitzua amaitzea, hau jadanik eman bazen, egintza honek ekar ditzakeen erantzukizunen kaltetan gabe.

Zerbitzuen onuradunek eta, dagokionean, hauen legezko ordezkariak, Udalari jakinarazi beharko diote 15 egunetako epean errentan izan den edozein aldaketa, familia unitateko kide kopurua aldatzea eta orohar, norbanakoaren ekarpena finkatzerakoan eragina izan dezakeen bestelako edozein baldintza gertatzen denean. Horren ondorioz ematen den aldaketa ekonomikoak hurrengo hilabetetik aurrera izango du eragina.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Onuradun bakoitzaren ekarpen indibiduala udal teknikariek ofizioz berrikusiko dute edota onuradunak berak edo honen legezko ordezkariak hala eskatuta, hauek aldatzea ekar dezaketen baldintza edo inguruabarretan aldaketaren bat izan denean.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko onuradunak egin beharreko gutxieneko ekarpen ekonomikoa **hilerio 10 eurokoa** da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartu baino lehen ebatzi gabe zeuden etkez etxeko laguntza zerbitzuaren eskariei, honako ordenantza berria oso-osorik aplikatuko zaie.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Presidentziari ahalmena ematen zaio araudi hau onesteko, aplikatzeko eta garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lerrun bera edo baxuagoa duten arau guztiak indargabetzen dira araudi honetan esandakoaren kontra joanez gero.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Araudi honetan ezarria ez dagoen guztian, ordezaile gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arauak betearaziko dira, baita indarrean dauden gainerako legeak ere, 5/1996 Legearen 9.2 eta 10.1 artikuluek Eusko Jaurlaritzari gizarte-zerbitzuak planifikatzeko eta horien gaineko arauak garatzeko ematen dizkion ahalmenenei kalterik egin gabe.

Bigarrena. Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren Ordenantzaren aldarazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost laneguneko epean sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 65.2 artikulua araberan.

Hirugarrena. Tokiko Gobernu Batzarrari Araudi hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arauak ebazteko ahalmena ematen zaio.